

IHOLDI Hoxahandia



Distantzia **11,2 km** | Desnibela **468 m** | Iraupena **4h00** | Tipologia **Itzulia** | Zedarriak **PR**

Joan Iholdiko herrira eta autoa utzi lakuaren ondotik ezkerrean dagoen aparkalekuan.

GPS datuak: **UTM : 647567- 4793330 Lat/Long : 43,27834/- 1,18133**

Ordokiaren eta mendiaren mugan, Iholdiko herri lasaia mendi ibilaldi eder honen abilekua da. Ondare historiko aberatsa dago herrian, hala nola Elizabelar jauretxea edo Oltzeko gaztelua. Urtaroaren arabera, ibilbidean behiak, pottokak, ardiak edota saiak ikus daitezke. Izan ere, euskal mendiak artzaintzarako eremu egokiak dira, eta ondorioz muinoetan artalde anitz ibiltzen dira. Ibilaldiko saririk onena, zalantzarik gabe, Euskal Herriko mendi anitzetara dagoen ikuspegi zoragarria da, haietan Orhi mendia edo Iparlako mendilerroa.



1. ZATIA > Abiatzea

UTM : 647567 - 4793330

Lakuko aparkalekutik, joan ezkerrean, herritik ateratzen den errepidean. Metro guti batzuk ibili eta errepideen bidegurutze batera iritsi.

2. ZATIA > Bista ederreko errepidea

UTM : 647496 - 4792862

Joan ezkerrean eta jarraitu errepidetik, 1,4 km inguru. Errepide honek ikuspegi ederrak eskaintzen ditu herrira eta inguruetara.

3. ZATIA > Leporantz doan bidea

UTM : 648655 - 4792384

Bidegurutze horretatik, patar zutean igotzen den eskuineko errepidetik jarraitu. 400 m urrunago, errepidea bide bilakatzen da. Mendi mazelan jarraitu, patar eztiagoan, lepo batera iritsi arte.

4. ZATIA > Gailurrera igotzea

UTM : 649219 - 4790743

Metalezko korralearen ondotik, berehala, joan eskuinera. Ondotik, gora joan, batzuetan nahiko zuta den patarrean. Hoxahandiako gailurrera iritsi (577 m).

5. ZATIA > Tontor-lerroa

UTM : 648206 - 4790848

Gailurrean, ikuspegi oso ederra dago; besteak beste, Orhiko gailurra edo Iparlako mendilerroa ikus daitezke. Hasi jaisten, tontor-lerroari jarraituz, hego-mendebalde derantz. 500 m urrunago, joan ezkerrean, tontor-lerroa uzten duen bide batetik. Hala, tontor-lerroaren beheko aldetik pasatu. 500 m urrunago, bidea agerikoagoa da, baina kaotikoagoa ere. Segitu jaisten, eta 100 m urrunago, joan bide berri batetik.



6. ZATIA > Jaitsiera zuta

UTM : 647601 - 4790112

Joan eskuinera. Mendi mazelan aitzina segitu eta 250 m ibili. Orduan, Hiruaitzetako lepora irteteko, jaitsiera zati labur baina zut-zuta dago.

7. ZATIA > Oihaneke bidea

UTM : 646987 - 4790565

Lepoan, joan eskuineko bideetik, 200 m-ra dauden usategietara irteteko. Orduan, joan eskuinera, Iholdiko herrira jaisten den bide harritsutik. 1,75 km urrunago, bidea errepide bilakatzen da eta bidegurutze batera iristen da.

8. ZATIA > Herrira itzultzea

UTM : 647148 - 4792200

Errepide zabalago batera iritsi. Eskuinaldetik jarraitu. Oltzeko gazteluaren ondotik pasatu, eta segitu 1. puntura iritsi arte.



INTERESGUNEAK

❖ Lakua

Laku atsegina, ibilalditik itzultzean atsedendaldia freskagarria egiteko aukera ematen duena.
UTM : 647569 - 4793367

❖ Gaztainondoak

Gaztainondoa zuhaitz nahiko arrunta da goratasun ertaineko mendietan. 20 edo 30 metro neur ditzake eta ehunka urte bizi daiteke. Haren fruitua, gaztaina, garrantzitsua izan zen europarren elikaduran, modu ezberdinetan kontsumitu daitekeelako. Irindu daiteke ere ogia egiteko, eta hori egiten zen gosete garaian.
UTM : 648519 - 4792145

❖ Oltzeko gaztelua

Oltzeko gaztelua XVII. mendeko da. 1643tik 1681era Baionako apezpiku izandako Joan Oltzeren jabetza izan zen. Oltze apezpikua ezaguna da Luis XIV.a eta Austriako Maria Teresa infanta ezkondu zituelako, 1660ko ekainaren 9an, Donibane Lohizunen.

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Artzain eremua: hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

- Ibilbide hau ez da gomendatua uso ehizaren garaian, 10/01etik 11/15era

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Komuna publikoak pilota plazatik hurbil



Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoa. Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilitzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzien gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetaren ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziazko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiatu (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informatu zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota ondorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren gunetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 -
SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKEL BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeak aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu ematen arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa:

Turismoko Harrera bulegoak

- BAIGORRI

Herriko Etxeko plaza

+33(0)5 59 37 47 28

- DONAPALEU

Charles de Gaulle plaza

+33(0)5 59 65 71 78

- DONIBANE GARAZI

Charles de Gaulle plaza

+33(0)5 59 37 03 57

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuak gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorrie jarraitu beharko zaizkie. ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEKKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEKKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↵	↵	↵	◀
Itzul eskuin	↶	↶	↶	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗